

MUFACEkoen ERRETIROA ERE KOLOKAN

Eskubideen urraketa amaiezinaren beste kapitulu bat martxan jarri dute, berriro ere Madrilen. Estatu mailako Funtzio Publikoaren mahaian luzatu du proposamena Espainiako gobernuak MUFACEkoak diren funtzionarioen erretiroa murrizteko neurri sortarekin, pentsioen erreformak zehazten duen bidetik:

- ▶ Erretiro arrunta 65 urtetik 67ra atzeratzea, era progresiboan, 2013an hasita, pebtsioaren %100 jasotzeko kotizazio urteak 35tik 37ra pasatuz.
- ▶ Borondatezko erretiroa 60 urtetik 63ra atzeratzea; gainera, 2021etik aurrera gutxiago kobratuko da:

Urtea	Adina	Zerbitzu-urteak
2013	60 urte eta 4 hilabete	30 urte eta 4 hilabete
2014	60 urte eta 8 hilabete	30 urte eta 8 hilabete
2015	61 urte	31 urte
2016	61 urte eta 4 hilabete	31 urte eta 4 hilabete
2017	61 urte eta 8 hilabete	31 urte eta 8 hilabete
2018	62 urte	32 urte
2019	62 urte eta 4 hilabete	32 urte eta 4 hilabete
2020	62 urte eta 8 hilabete	32 urte eta 8 hilabete
2021	63 urte	33 urte

NORAINO IRITSIKO DIRA ESKUBIDEEN MURRIZKETAK?

- ▶ GOBERNUA, CCOO ETA UGT BESTE "OPARI" HAU PRESTATZEN HASI DIRA.
- ▶ ORAINGOAN ERE DENON HOBEBEHARREZ ARI DIRELA ESANGO DIGUTE.

NEGOZIAZORAKO ESKUBIDEA ETA HEMEN BERTAN NEGOZIATZEA EXIJITZEN DUGU!!

BORONDATEZKO ERRETIROA DENONTZAT 60 URTEREKIN!!

ERRETIROA HARTZEKO ADINAREN ATZERAPENIK EZ!!

STEE-EILAS

2011-03-24